

Nork deskodetzen du hemen nor, nork kodetzen du hemen nor?

Katrin Mayer
Jasmina Metwaly
Sadie Plant
Sophia Eisenhut
Anna Cairns

c0da

@Bulegoa Z/B, Bilbao and @Zapi Zuria

Who is decoding whom, who is encoding whom?
Citation from Sophia Eisenhut, *software warfare – EX PONTO BITCHES*,
translated from German into Basque by Itziar Santin

As part of
Nork deskodetzen du hemen nor,
nork kodetzen du hemen nor?

Material Voices

With Beatrice von Bismarck,
Rike Frank and Katrin Mayer

We can very much relate to a notion of the exhibition as material voice. It brings to the fore the impact of exhibitions and their histories as transformative agents across different times and places beyond the singular event; and it draws attention to their crucial role in the concrete testing of new modes of narrating and relation building. Taking these thoughts further, curatorial practices have the capacity to give rise to new materialities. Beatrice von Bismarck and Rike Frank will pick up on this idea and speak about their joint inquiries into exhibition histories and curatorial research. In this context, the conversation will also address archival and research practices that acknowledge the dynamic and plural relations in curatorial processes and traverse sites of theory production, embodiment and modes of relating.

To allow the experience of a materiality of voices to sink in even deeper, artist Katrin Mayer will bring in her research project *c0da*, which deals with feminist methods of coding and writing. A web publishing site under development in close collaboration with designer and programmer Anna Cairns, *c0da* combines the history of the computer as HERSTORY with feminist modes of writing. Moreover, Katrin has also invited a group of artists, writers and art historians to contribute. Some of them engaged in a series of correspondences loosely referring to figures like zeros, circles, holes and oos, not least in reference to the zeros and ones in computing and their impact on feminist theory and philosophy, but also because of their respective plasticity.

Listening to these voices and in light of the event's title—who decodes or encodes whom—writing, listening and recording runs through the material act of building narratives and constellations, of materiality shaping materiality, of relating to relations. This in turn leads us to one or two questions: in what ways can curatorial research participate in generating and shaping relations other than those already existing within the curatorial field? And how can it contribute to the materiality of disarticulated relations?

Material Voices: Feminist genealogies of the work of making exhibitions is curated by Bulegoa Z/B.

This program is part of the collaborative project "Communities of Learning, Bridging the Gap of Isolation", initiated by WHW and supported by the Culture of Solidarity Fund of the European Cultural Foundation. It is also supported by the Foundation for Arts Initiatives (FFAI), New York.

<https://bulegoa.org/en/material-voices/>

**Bule
goa Z/B** **European
Cultural
Foundation**

@Bulegoa Z/B, Bilbao, March 18, 2022



Interesatzen al zait
hortik hain modu
zalantzarrian sortzen
den idazkera «femenino»
baten eraikuntza berriz
deskodetzea? Nora
ote darama horrek,
kodetutakoak eraikuntza
maskulinoa baino ez
badu islatzen?
Softwareak
hardwarearekiko
autonomia
izateko aukeran
pentsatzea.

Work
deskodetzen
du hemen
nor,
nork
kodetzen
du hemen
nor?

1984
Mikroprozesadoreak

*Nork deskodetzen du hemen nor,
nork kodetzen du hemen nor?*

4

Jasmina Metwaly, *Zeros*

Developed and read by Jasmina Metwaly for:
ZOOO0M ZERO, A Collective Reading and Listening
initiated by Katrin Mayer, May 30, 2021
<https://c0da.org/>

6

Sadie Plant, *agujeros*

Capítulo en Sadie Plant, *Ceros + Unos, Mujeres
digitales + la nueva tecnocultura*, Destino, Barcelona,
1998, pp. 60-62.
Read by Leire Vergara for Bulegoa Z/B

We thank Sadie Plant for permission to republish!

8

Sophia Eisenhut, *software warfare –
EX PONTO BITCHES*, 2021

Developed in the context of Katrin Mayer's
web-publishing project *c0da*
Translated from German into Basque by Itziar Santín
and read by Oihane Iraguen for Bulegoa Z/B

We thank Maite López Las Heras for her permission
to use her Basque translation of Sappho:
Maite López Las Heras, *Safo. Poesía guztia*,
Donostia: Balea Zuria, 2020, 38. or.

The German text and an English translation by
Sadie Plant can be read here: <https://c0da.org/>

Listen to the Readings at
<https://zapizuria.org/material-voices-3/audio/>

Anna Cairns
Graphic Design and Code

Typeface:
Oracle by Dinamo

<https://c0da.org/>

Katrin Mayer's publishing project *c0da* is funded by the
Berlin Artistic Research Programme/gkfd (2020–2021)
<https://kuenstlerischeforschung.berlin/stipendiatinnen/katrin-mayer/>

Zeros,

circles, punctures, punctuations, arithmetic situations.

Arabic, Persian, Pashto, Dari, Urdu and Shahmukhi.

Indic numerals. *arqām hindīyyah* (أَرْقَامُ هِنْدِيَّة)

In the Eastern Arabic—also known as Arabic-Hindu—numeral system, a Western Arabic “Zero” resembles a dot . A dot, which is: a decimal marker.

A decimal marker, a null, with no effect and no legal validity.

A numeral Western Arabic 5 resembles an Eastern Arabic zero-looking shape: ٥ *But this is a matter of a specific gaze, that of confusion—looking at ancient manuscripts online, or dialling the telephone as a kid.*

Tabular arrangements.

A dot, a zero, the word “kha”—an “emptiness”, sifr, empty, zephyrus, zefiro—the wind from the west.

An ancient Quipu, a cord device, with knotted bits, Mayan numerals, where the zero would be indicated by absence, an absence of the knot in the encoded base of a ten positional system.

I didn't excel in Math as a kid, or learn about Khwarazmi (Algorithmi) in school, but I liked to draw and look at symbols, learning how to write through drawing of shapes of the Western and Eastern Arabic numerals that in some way or the other corresponded to the way in which learning was designed to progress in my primary schools. Or perhaps corresponding to that offered through a design or a positional notation in the decimal system.

The fives and the zeros especially. With them too I learned how to write the Arabic alphabet. My mother would teach me how to trace the dots of the decimals from right to left or from left to right—it didn't matter. The understanding of its significance came later. I followed the dots to form letters, to read and to finally construct meaning. There was something very pleasurable for me about writing the number 5: ٥. It was easy, a simple way out, an easier way in, eased into through the visual art of calligraphy. The numeral five 5—٥ always makes me visually think of something that is in a perpetual motion. Through the semantic enigmas and back to “the Arabic letter whose numerical value is equal to this numeral”. But what does it mean?

Alif, Ah. Abjadi system. The first letter in the Arabic is 'alif, *I learn*, and it represents 1, the following letter, bā' is 2, tā' 3, thā' 4, jīm 5, 'ā' 6, khā' 7, dāl 8, dhāl 9... Letters. Followed by the representation of the first nine intervals of the 10s and those of the 100s: yā' for 10, kāf for 20, qāf for 100, ending with 1000... zeros, followed by more zeros... nefer

(nfr)

But the zeros were not there for a very long time. Or perhaps they were, as a placeholder in the algorithmic base 10 decimal system. Greeks would place two dots (. .) over an oval.

An oval (a heart perhaps?) with a windpipe stemming upwards out of it, attached to the extended line resembling an oesophagus, (ﻥﻓﺮ) a Nfr, meaning: a beautiful, harmonious notation. I remember seeing it for the first time and mistaking it for Ankh—the key of life, the delta, the Nile with its east and west banks and its seasonal floodings.

And that was before Queen Victoria with her assigned cartographers who drew geometrical maps of the British Empire colonising Africa, and also before the colonisation of India and the hydrological project, a project implemented later in Egypt changing forever the course of the river Nile. Forever—and before the Egyptian cotton was so called “100% Egyptian cotton”, a desire outdated, updated by fashion trends to this date. Nefer proceeded the building of the dams on the Nile. It extended all the way to Upper Egypt, passed Victoria basin in Sudan, with Khartoum at its heart and into the two tributaries, the white speedy Nile—with its seasonal flooding and the blue Nile—packed with silt.

It was also long before the Suez Canal project and the colonial conflict over one another's colonies—the British versus the French, to first cross the gates to the Mediterranean at night. A standing alone ovation. No witness.

A standing alone notation. Not so much of a placeholder that consists of these different parts that reflect the inside of the body. Null, in the home of feelings, I refer to the heart, the good and the bad, the felt and the intended. I learned how to draw a trilateral hieroglyph F35, a lute (or a windpipe?) leading to an oval shape, representing the heart followed by trachea, esophagus... I breathe.

«En algún lugar hay una sirena de cuerpo verde cubierto de escamas. Su rostro, al desnudo. La superficie inferior de sus brazos, rosada. Algunas veces canta. Las mujeres dicen que de su canción no se oye sino un continuo 0. Por eso esta canción les evoca, como todo lo que recuerda al 0, el cero o el círculo, el anillo vulvar.»

Monique Wittig, *Les Guérillères*

Ada, huyendo de los rigores de una educación que le había enseñado a no preguntar tales cosas, se desvió de

la recta vía y se preguntó también sobre el cero. Una de sus primeras preguntas a Augustus de Morgan, su tutor en matemáticas, concernía a la condición de este número. ¿Existe como «cosa»? inquirió. ¿Era algo, o nada, o además algo más? Él le dio una respuesta intrigante. «Cero es *algo*», explicó, «aunque no alguna *cantidad*, que es lo que aquí quieres decir con *cosa*.»

«Ella no se crea a sí misma como uno, como una unidad femenina (singular). No está junto o en los contornos de una única verdad o esencia. La esencia de una verdad le es ajena. Ella no tiene ni es un ser. Y ella no opone una verdad femenina a una masculina... el sexo femenino se da aceptándose a sí mismo, compartiendo e intercambiando interminablemente sus labios, sus orillas, sus límites y sus "contenidos", incesantemente se transforma en otro, la estabilidad de la esencia no es inherente a ella.»

Luce Irigaray, *Speculum of the Other Woman*

El cero puede no significar nada para el mundo occidental, pero esto no tiene nada que ver con el modo en que opera. Era ciertamente esencial para el funcionamiento de la Máquina Analítica, una máquina que, según Menabrea, utilizaba un «oculto principio de cambio» que le permitía «proporcionar valores singulares». La máquina podía hacer frente a aquellas funciones «que necesariamente cambian de naturaleza cuando pasan por el cero o el infinito, o cuyos valores no pueden ser admitidos al franquear esos límites. Cuando se dan esos casos, la máquina puede, por medio de una campana, avisar de que se está produciendo el paso por el cero o el infinito y, entonces, pararse hasta que un ayudante la ponga de nuevo en funcionamiento, preparada para cualquier proceso que se quiera realizar a continuación. Si este proceso se ha previsto, entonces la máquina en lugar de hacer sonar la campana, se dispondrá a sí misma a presentar las nuevas tarjetas que están relacionadas con la operación posterior al paso por el cero y el infinito». La posibilidad de este paso permite a la máquina «cambiar de forma arbitraria sus procesos en cualquier momento al ocurrir cualquier contingencia».

En cuanto a los papeles pragmáticos que desempeñan los ceros y los unos de los códigos de máquina no sólo vuelven a los códigos binarios que representan sus símbolos lógicos. Si se supone que cero significa un agujero, un espacio o un fragmento perdido y uno es el signo de la positividad, las máquinas digitales invierten completamente estos códigos binarios. Tanto en los sistemas electrónicos como en las tarjetas perforadas de las máquinas de tejer, un agujero equivale a uno y un espacio en blanco equivale a cero, en cuyo caso hay dos elementos perdidos, si se puede decir que se han perdido. Ya no es un mundo de unos y no-unos o de algo y nada, cosa y brecha, si no de no-agujeros y agujeros, no-nada y nada, brecha y no-brecha. No es que esto importe más que el dualismo inicial entre uno y cero concebido como el no-uno. Cero era algo muy diferente del signo que ha surgido de la incapacidad occidental de tratar algo que, como el cero, no es algo en particular ni nada en absoluto. Y está claro que con o sin los signos que los representan como negatividades inertes, los agujeros mismos no son nunca simples ausencias de cosas positivas. Éste es un mito puramente psicoanalítico. Para Deleuze y Guattari no basta con «decir que partículas intensas en movimiento pasan por agujeros; un agujero es tan partícula como lo que pasa por él...». Los agujeros no son ausencias, espacios donde debería haber algo más. «Anos volantes, vaginas rápidas, la castración no existe.» A la deriva en las dopadas retículas de un cristal de silicio, un agujero es una partícula positiva antes de que sea la ausencia de un electrón con carga negativa, y el movimiento de los electrones hacia el polo positivo es también un flujo de agujeros que fluye en sentido contrario. Los agujeros son partículas cargadas que fluyen a contracorriente. Para el físico cuántico, «los agujeros no son la ausencia de partículas, sino partículas que circulan a mayor velocidad que la de la luz».

«Perforar las montañas en lugar de escalarlas, excavar la tierra en lugar de estriarla, agujerear el espacio en lugar de allarlo, convertir la tierra en un queso gruyère.»

Gilles Deleuze y Félix Guattari, *Mil Mesetas*

Konpiladorea beti dago *in drag*.

Ezkutuan, Ovidiok *puellae* ars *amatorian* jada gomendatzen zien moduan, makillatzen da. Komunean edo autobusean esku-ispiluarekin. Inor haren edertasunaren landutasunaz ohartu ez dadin. (Edo haren bihurtutasunaz? Edo haren faltsutasunaz?)

Ovidio, beraz, HEMEN OBRA GOIZTIARREAN GAUDE eta programa jada hain da azpikaria hain landua eta orain puztu gabe: konpiladoreak ez du bere burua makillatzen, makillatu egiten dute, nork eta emakume-eskuek, jakina.

Computer Science Man of the Year Award saria lehen aldiz eman zutenean, 1969an, emakume batentzat izan zen. Saria urte horretan bertan sortu bazuten, zergatik ez zioten beste izen bat jarri. *Man of the Year* hori, nolanahi ere, Grace Hopper da.

Epistulae heroidumetan, Ovidiok gutun-elegiaren forma hibridoa aurkitzen du eta, haren bidez, erraz eramaten du azentuarekin (m.) eta azenturik gabe (f.) metrika ororen funtsezko printzipio den bitartasuna igorle/hartzaile eredura.

Komunikabide-orainaldiaren osotasuna, bide digitalez transmititzen den informazioaren forma oro kode bitarraren printzipioan oinarritzen da.

Lacaneek honako hau idatzi zuen: *Emakumea ez da gai bere gozamenaz ezer esateko.*

Ados. Sinbolikotik, zeinuen ordenatik, kulturatik baztertuta dago, beraz, emakumea, faloaren erreferentzia falta zaiolako edo erreferentzia horrek negatibo soila irudikatzen duelako¹.

Hala, zeroa ez da bakarrik *ezer ez; zerbaiten* aurkakoa da.
Zeroak eta batak.
Gizon/emakume, emakume/gizon.

Grace Hopperren gizona literatura-irakaslea zen: Vincent. Elkar ezagutu zutenean, Grace haren eskoletara joaten zen. Bururatu zitzaion ordenagailuak ingelesa ulertu behar zuela, ez programatzaileak ordenagailuaren hizkuntza. Grace Hopperrek ba omen zeukan hizkuntzetarako ere talentu handia. Bere ikasleei matematiketan saiakerak idazten uzten zien eta hizkuntzarekin lotutako irizpide formalen arabera ebaluatzen zituen.

Grace Hopper: makinak ulertu.

Ovidio: emakumeak ulertu.

Konpiladorea: emakume programatzailea ulertu.

Makinen ikuspegitik, beharbada irudikatu beharko genuke giza hizkuntza dela deskodetu behar dena. Ez zait zaila egiten ikuspuntu hori neureganatzea.

«Eta, azken finean, emakumea, gizonari dagokionez, desioa da, ezjakintasunaren lekuan dago, sekretuaren lekuan»².

— *coded*, hain justu.

Grace Hopper eta idazketaren gerotasuna. Eskuliburua jada funtzionatzen ari den makinaren bidez bakarrik idatzi behar da.

1

2

Hélène Cixous: *Die unendliche Zirkulation des Begehrens. Weiblichkeit in der Schrift*, Berlin: Merve, 1977, 24 (Jutta Kranz-ek eta Eva Meyer-ek frantsesetik itzulia).
Ibid., 31. or.

Makinaren funtzioak ulertzeko gai izateak ez du esan nahi makina programatzeko gai izatea³.

Kodeak, *arte* modernoak bezala, iruzkina behar du.

Ars amatoria. HEMEN OBRA GOIZTIARREAN GAUDE, non maitasun-arte gerra-arte bezalaxe ikas daitekeen, Wikipediaren arabera. Poema hezigarria/eskuliburu?

Ovidiok —antzinako *pick-up artista*—, maitasun-artearen ostean (zeinak nesketan nola egin azaltzen baitu), andre heroien gutunak idatzi zituen eta, horietan, 15 emakume abandonaturen ikuspuntua bereganatu zuen; emakumeok greziar mitoetatik ezagunak dira, bigarren mailako pertsonaia gisa edo gizon garrantzitsuagoen emazte gisa.

Ovidio psike «femenino»az interesatzen al zen? Nork deskodetzen du hemen nor, nork kodetzen du hemen nor? Interesatzen al zait hortik hain modu zalantzarik sortzen den idazkera «femenino» baten eraikuntza berriz deskodetzea? Zertarako? Nora ote darama horrek, kodetutakoak eraikuntza maskulinoa baino ez badu islatzen?

Softwareak hardwarearekiko autonomia izateko aukeran pentsatzea.

Grace Hopperrek eta beste emakume anitzek nylonezko galtzerdiak zeramatzen. Agian norbaiti musu eman zioten D Egunean. Lotunetan kableak sartzen zituzten, haien sarketaren, penetrazioaren arduradunak ziren. Matematiketarako dohaina duten dominatzaileen, *puellae doctae*en harem maskulinizatu batek zera dio: *command and control*.

(Bata zakilaren ordezkotza gisa soilik da zeroarentzat irisgarri.)

Itsasontzien feminitatea, zifren feminitatea, makinaren feminitatea. Olinpia, sexu-panpina eta desengainutzat hartutako ilustrazioaren karikatura.

Ludismoa ginofobia gisa, esaten diot J.-ri jatetxean eserita gaudela. Haren begiek distira egiten dute Charles Babbagez mintzatzen garenean, eta orduan berriz konturatzen naiz harengan maiteminduta nagoela. Ada Lovelaceren entzuerarik ez du (ados, jakina ezetz, eta berehala ohartzen naiz J.-rekikoa agian kutsatuta dagoela), eta haren eta Babbageren arteko amodio intelektualari buruzko hitzaldietan korapilatzen naiz, haren lanik gabe Babbagek garatutako kalkulagailuak ez baitzukeen bere erabilera aurkituko, Lovelace izan zelako azken finean hizkuntza bat aurkitu zuena edo hizkuntza bat *asmatu* zuena, eskuliburu bat idatzi zuena zeinaren bidez gailua programatu zitekeen, zeinaren bidez gailuarekin *hitz egin* zitekeen. J. bere ardoa sodarekin ni nire garagardoa baino motelago edaten ari da, erdi-abiaduran.

Ezin diot utzi Lovelace goraiatzeari, Lord Byronen alaba miragarria eta matematiketarako dohainduna, zeinak aita ludismozaleak ordezkatzeko guztiari traizio egin baitzion, eta gure jatetxe-egoera berehala viktoriar-itxurati bihurtu nahiko nuke.

(Fanfikzioak egiten duen askatasun-promesa, eragina izateko batere botererik ez duelako baieztatzen. Horixe al da Ovidiok emakumeei ahotsa ematean egiten duena?)

Gerraren feminitatea. *La guerre*.

Ordenagailua tiro-kartutxoa baino azkarragoa da, eta hori benetan da hala, ez metaforikoki.

Informatikaren jatorri historikoa: emakumeek balen ibilbideei buruzko kalkulu balistikoak egiten zituzten, gizonak kalkulua testu gisa irakurtzen zuten frontean.

*Men may have dropped bombs, but it was women who told them where to do it*⁴.

Bigarren Mundu Gerra: emakumeak bakarrik uharte batean
EX PONTO BITCHES

(*In drag* konpiladorea al da Ovidio?)

Lehenengo gutuna Penelopek Odiseori idazten dio; eta konpiladoreak/Ovidiok badaki, jada idaztean, ezin duela hipotestu homerikoaren gainean idatzi. Idatzi egiten du, ordea⁵. (Fanfikzioak egiten duen askatasun-promesa, eragina izateko batere botererik ez duelako baieztatzen?)

Baina *coding*ek ez ote du «deskodetu» esan nahi, «kodetu»ren ordeaz, Bigarren Mundu Gerran emakumezkoen eskulana eremu militarrean erabili zenean, Bletchley Park-en Enigma alemana deskodetzeko, ulertezina zeinu ulertezin gisa kategorizatzeke eta azkenean zeinu ulergarritara itzultzeke.

Kode-apurketa adierazpenean datzan martzialitatea. Beraz, *codebreaker bonebreaker*.

Idazketa, hortaz, hemen (Ovidioren ean ez bezala) benetan femeninoa da.

Anorganikoaren hermeneutika.

Balistika. Tomis, eta... bai... tristea da. Europako kontinentearen beste aldean bala batek buruan jotzen zaitu eta tira hori jasotzen duzu, beraz, zenbakien edertasunetik, itzulpenetik oro har.

Itzuli, estali eta eraman. *Gudariaren feminitatea*, zeina moztarrotzeko, ezkutatzeko gaitasunean datzan, zeina engainatzeko prestutasunean datzan (ez al da hori fikzioaren oinarritzko funtzionamendua?).

Makillatzea, atzipetzea, softwarea berekin dakarren biguntasun bero guztiarekin, mukosa-aniztasun guztiarekin, ez da hardware falikoaren *manipulazioa* baino gutxiago, zirkulazio samurra baina bideratua⁶.

Idazketaren egitura lizuna.

Heroidesen bakarrik gutunean, bestearengana zuzentzean dago emakumezko subjektu bat, daude emakume horiek. Eta helduko naiz haiengana.

4

Claire L. Evans, *Broad Band – The Untold Story of the Women Who Made the Internet*, New York: Portfolio, 2018, 72.

5

...zelako ironia dagoen «bere konbikzioaren kontra» adierazpenean, idazten diot J.-ri (erretorikoaren alferreko edertasuna). Bai, zergatik idazten diot orduan etengabe.

6

Cf. zirkulazio (*circulation*) kontzeptuari buruz: Bini Adamczak, «Come On. Diskussion über ein neues Wort, das sich aufdrängt – und unser Sprechen über Sex revolutionieren wird», *ak – analyse & kritik – Zeitung für linke Debatte und Praxis*, 614. zk., 2016-03-15.

Beraz
horra agurrak

kaixo Enone
kaixo Ariadna
kaixo Penelope

kaixo itzultzen ari zareten Glak.

Zuoi guztioi mintzatzen natzaizue.
Zuoi,
serving the machine.

Ados. Konpiladorea/Ovidio bere forman ez da ukigarria, transmititzeko soilik dagoelako hor. Agian ezpainetakoa jarrita, baina hori ere egoeraren arabera da, apetatsua eta nolanahi ere asmo programatikorik gabea, agian *pinkwashinga* besterik ez. J.-k batzuetan ezpainetakoa eramaten zuen garaiaz gogoratzen naiz. Alan Turingi ezarritako estrogeno-terapiaz gogoratzen naiz, zeina kondena bat baino nahiago izan baitzuen (etxean programatu zezakeelako). Justizia britainiarrek homosexualitatea «tratatzeko» metodo hori hautatzeko aukera eman zion. Femitatearen hormonak bere sexu-zaletasunetik libratuko omen zuen. Bi urte geroago, Turingek bere buruaz beste egin zuen. Filisek, Safok eta Didok ez zuten gutuna beren burua hiltzeko erabakiarekin amaitu bakarrik, suizidioa idazkian programatu zuten. Beren epitafioa kode gisa idatzi zuten.

Programatzea gerotasunaren kontrako gisa.

Grace Hopperrek ez du uniforme erantziko eskolak ematen ditueneari. (Zergatik idazten ari naiz etorkizunean? Programazio-hizkuntzak orainaldia isla al dezake?)

Konpiladorea/Ovidio bere forman ez da ukigarria, transmititzeko soilik dagoelako hor.

Iturburu-kodearen forma eta makina-kodearena, zeinen artean transmititzen baitu, ustez badira ukigarriak, nolanahi ere. Idazten ez duten emakume mutuen materiala (osagarri den Safo lesbitarra izan ezik, baina biak ala biak berdin dena den Ovidioren berrikuspenean), alde batean; ahots ustez femeninoaren rol-elegia bestean. Aitortu behar al diogu Ovidiori, filologiako kontsentsuak ezartzen duen moduan, emakume-figurei ahotsa eman ziela, ziur ezetz.

Betty Jean eta Betty Snyder. Bettyak Jasoni idazten diotenak dira, biek makina berari. Biak harreraren elkarrekin trukagarriak dira, dei itzazu Hipsipila, dei itzazu Medea. ENIAC programatu zutenak dira. Haien gizonezko lankideekin batera, makinaren, hardwarearen aurrean zutik fotografiatzen zituzten. 1946. urtea da. ENIAC Ameriketako Estatu Batuetako armadaren arrakasta gisa eszenifikatu zen egunkariko argazkian, gizonezko programatzaileak bakarrik agertzen ziren, Betty Jeanen eta Betty Snyderren izenak ez ziren aipatzen.

Softwarea berez beti ikusezina da. Horregatik dira hain tamalgarriak erabiltzaile-interfaze koloretsuak, bertako faltsutasunak bere burua protesik eskatzat dauka, zakilaren ordezkioaren zakilaren ordezkotzat⁷.

Konpiladorea beti dago in drag.

7

J.-ren mezu bat, *edited 04:56an*, gauean: *estimatzen dut Joseph Vogl, baina mamu ipuinekiko erreferentzia atera dezaket pertsonaiek porrot egiten dute analisia, iPhone berrian hasiera botoirik gabe ez dakitelako gainazala ukituz atzera egiten. noiz kenduko diogu magia erabiltzailearen esperientziari??*

03:33an jada: *zu ikusteko irrikan nago eta unibertsitate tekniko batean kontu teknikoaren proiektzioak komentatzeko irrikan.*

Bigarren Mundu Gerra amaitu eta gizonezkoen eskulana frontetik itzuli zenean, bitartean arloan ezarri zen emakumezkoen okupazioaren naturaltasuna berrikusi egin zen. UNIVACen programatzailer izan ziren emakume batzuk etxe-eremura itzuli ere itzuli ziren. Grace Hopper ez zen haietakoa izan.

*[...] eta haren ibilera maitagarria
eta haren aurpegiko argi distiratsua
ikus nahi nituzke,
lidiarren zalgurdiak baino lehen,
soldaduak gerrarako prest egon baino lehen*⁸.

Grace Hopper alkoholikoa egin zen. Lanpostuan ere edaten zuen, programatzean, eta irudikatzen saiatzen naiz zer-nolako trebetasuna zeukan horretan, nola saiatzen zen nekatzen, hizkuntzari berari hitz egiten uzteko, UNIVACen hizkuntzari alegia.

Gogora dezagun Grace Hopper Harvardeko bere bulegoan makinarekin, gogora dezagun Penelope bere ehungailuaren aurrean, leihoa aldiro zabalik: gerra-amaierako udaberria da. Aurreko kafetegiko ate karrankariak gogoia astintzen dio. Gero esango da gerra haren bizitzako garai zoriontsuena izan zela⁹.

Gauean idaztearen kontua argitu gabe.

Ezin saihestu ere egin idazki guztiak J.-ri zuzendu eta Grace Hopperren moduan beti mozkor idazten diot etengabe, txatean ez idaztearren eta konpiladoreari/Ovidiori ere ez, J.-rengana zuzentzen naiz hortaz, testu-programa baten, gorde gabeko dokumentu baten tarteko geruzan, zeinaren edukia ez baitut *hopefully* inoiz mezu-zerbitzuan kopiatuko, are gutxiago bidali. (*Heroidesen* bakarrik gutunean, bestearengana zuzentzean, dago emakumezko subjektu bat) Beraz, idazten diot:

*Viena bitxiki hutsa iruditzen zait hildakoen
oroitzapena egiten duten jaiegun hauetan. Txakurra
eta testua dira nire aldameneko bakarra.*

Idazten diot:

*Barkatu zure aurrean (berriro) hainbeste
apaltzeagatik;*

nire

*beldur jada aipatua[z] eta agian puztua[z], sendatzeko
itxaropena aldameneko batekin lotzeko beldurra[z].
Dena den, asko pentsatzen dut zuegan. Sintomen
kudeaketari buruzko jakintzak ez du oraindik azaltzen
kudeaketa horren posibilitatea. (Eskuliburu bat
idaztearen erredundantzia?) Arratsaldeak parkean,
familia gazteak, bikote-yoga, hildakoen oroitzapena.
Baina gero gizaki baten moduan zeharkatzen ditut
kaleak berriro. Hemogramek behintzat bat egiten dute.*

Idazten diot nire beldur jada aipatua[z] eta agian puztua[z],
sendatzeko itxaropena aldameneko batekin lotzeko beldurra[z].

SPEM IN ALIUM
SPAM IN ALIUM

Ez zen erantzunik etorri, ez nuelako bidali.

(Aldameneko bakarra makina-kodea da.)

Betty Snyderrek, hogeita hamar urte ere ez zituela (nik oraintxe adina), HEMEN OBRA GOIZTIARREAN GAUDE, UNIVACerako sorgailu bat idatzi zuen, zeinarekin lehenengo aldiz idatzi baitzen programa bat idazten duen programa bat:

8
1
9

Euskarazko itzulpena: Maite López Las Heras, *Safo. Poesia guztia*, Donostia: Balea Zuria, 2020, 38. or. [itzultzailearen oharra].
Cf. Iris Radisch, Ilse Aichinger-ekiko elkarrizketan: «Ilse Aichinger wird 75: Ein ZEIT-Gespräch mit der österreichischen Schriftstellerin», *Die Zeit*, 45. zk., 1996. «Gerra izan zen nire garai zoriontsuena. Gerra onuragarria gertatu zitzaidan. Han ikusi nuena bizitzako garrantzitsuenak izan zen niretzat. Gerra-garaia itxaropenez beteta zegoen. Jendeak oso zehazki zekien non zeuden lagunak eta non ez, eta hori ez da jada jakiten gaur egun Viena. Gerrak gauzak argitu zituen». Ibid.

Sorte/Merge. (Gizonek kateamenduan duten monopolioaren lekualdaketa soila? Nork idazten du noren gainean hemen?)

Ezaguna zen ideia onenak *gazez* etortzen zitzaizkiolako. Matematika-problema bat zegoenean besterik gabe *lo egin* eta haren subkontzientearen esku uzten zuelako ebazpena. Bettyk konpiladoreari/Ovidiori. Bettyk/heroia Leandrori:
*hots, benetako ametsak izan ohi ditugun unean,
logalez lasai, atzamarretatik ihes egin zidaten hariak,
eta burkoan bermatu nuen burua.*

Zer hari iruntzen ari da? Zer ikusi zuen ametsean? Itotzen ari zena ikusi zuen. Eta, hala ere, gutuna bihozkada txarraren aurka zuzendu du, eta bidali egin du maitaleari denbora laburtuko dion gutuna, berak jada porturaino gidatzeko lanpara prest daukala. Susmatu, eta hala ere idatzi dio, susmatzen du programa hilda, esekita dagoela. Orain horri *trial and error* esaten zaio.

Grace Hopperren gizona literatura-irakaslea zen. Gizonak Grace utzi zuen ala Gracek gizona. Aspalditik ez zebiltzan jada oso ondo. 1945ean lortu zuten banantzea, gerra amaitutakoan.

Programa bat exekutatzeari (*execute*). Alan Turingi ezarritako hormona bidezko terapia. Exekuzio motela. Ovidiok erbesteratze berediktua jasoko du. (Zergatik idazten ari naiz etorkizunean? Programazio-hizkuntzak orainaldia isla al dezake?)

Gero, Ovidiok berak idatziko ditu kexazko gutunak uharte batetik, bere erbestealdiko lekutik, distikotan gainera. Uhartea Tomis da, gaur egungo *Mesia*¹⁰ (I know). Andre heroia bihurtu da bera ere? Konpiladoreak/Ovidiok ustez enperadorearengandik jasotako estrogenoa beraren obra goiztiarraren, bertan eraiki zuen desio femeninoaren botika-kutxatik hartu du. Gerora hezurmamitu du. (Horrela programatu al du bere burua?)¹¹

Betty Snyder ezaguna zen ideia onenak *gazez* etortzen zitzaizkiolako. Matematika-problema bat zegoenean besterik gabe *lo egin* eta haren subkontzientearen esku uzten zuelako ebazpena. Kointzidentzia zoriontsua, nagitasuna dirudien hori egiletza lagatzea da, baina zeri. Gauari, besteari. Konpiladoreak/Ovidiok Bettyri eta Bettyk/Akonziok Zidiperi:
*Febe ehiztariak agindu zidan, lotan nengoela, hau idazteko;
hau idazteko agindu zidan Maitasunak esna nengoelarik.* Zeozer idatzi behar zutela, ados. Baina zer agindu zieten idazteko?
*«Sagar honen irudiarekin Akonziok adierazten du
bertan idatzia zegoena bete dela».*

Eskasa, hurrengo urratsa baino ez, beraz, nabari bezain ezkutua, programatutakoaren gauzatzea (*execution*), beraz, kutxa beltzaren barruko prozesu misteriozkoa —zer gertatzen da nirekin?—, zeina agian industrialki tratatutako argizari-geruza baten azpian hala horitzen zizelkatuta baitago jada berria ez den azalean (hortaz, ezin da jada jan); gerrak luzaro iraun du.

10 Alemanez, oso antzekoak dira *Mörsen* («Mesia») eta *Möse* («motxin») hitzak [itzultzailearen oharra].
11 Emakumezko subjektu baten esentzia ezeztatzen badut, zergatik ezin diot Ovidiori feminitatea soilki aitortu, TERFa izan nahi ez dut eta?

Duela zenbait urte unibertsitatean idatzi nuen idazlan bat irakurtzen dut, Ovidioren epistulae heroidumetan printzipio poetiko gisa erabilitako malenkoniari eta feminitateari buruz. Ohar zaharrak irakurtzen ditut.

(Gutun-)jeleberri baterako ideia: Ovidioren klonak, trans emakumeak ere badirenak, neogreziar uhartez betetako planeta batean sakabanatuta eta elkarrekin guztiz konektatuta daude. Bakoitza Ovidioren Heroideseko andre heroia batekin identifikatzen da nahitaez eta haren (tragedia-)istorioaren jakitun da, baina errepikatu ez ezik saiatu ere egiten da besteak sobera gainditzeko (tragedia-)istorio horiek eremu futuristara transzenditzean. Beraz, kontua ez da jada maitale absentea berreskuratzea, baizik eta norberaren kontakizuna independizatzeko estilistikoki eta formalki optimizatzea.

Hurrengo goizean, 1946ko San Valentin egunaren biharamunean (ez da inorekin geratzen, dena den), bizkor doa makinarengana, ENIACengana, badaki hiru mila etengailuetatik zein jarri behar duen berriz, badaki hamar posizio posibleetatik zein hartu behar duen hark.

Erantzunak amestea.

Zein erraza den, esaten dio bere buruari Bettyk/Akoniok, esaten dio bere buruari Bettyk/Herok:

*Halako moduan amesten hasi naiz, non ametsa eta testua infinituraino trukutzen diren. Alde batetik mingarria eta ikaragarria da [...]. Baina, aldi berean, bi ahots banitu bezala da. [...]
Hasi-masietan dagoen testuak eraginak idazten ditu berriz nire inkontzientean. Azkenak, kontrara, beste eragin batzuk idazten ditu berriro testuan¹².*

Ametseko ahotsa gerra-orainaldiko nortasunarekin bat ez datorrena da. Ametsa ez da gerraren zati bat. Emakumeek gerra amesten dute.

Emakumeak ez du bere desioa ezagutzen (Lacan). Bai horixe. Erantzun gabeko gutunak.

Erantzunak amestea.

*Feet don't leave me now
take me to the finish line* (Lana del Rey)

Peneloperen ehuntze-lana, frontean ez egotea. Kontakizuna berriro ere deuseztatzea, berriz egitea. Penelopek Odiseori: gerra-agertokia ehungailuan sumatzea (nor naiz ni gerraz idazteko.) gerra agertokia ehungailuan ukatzea, haren *gainean idaztea*, Penelopek egiten duen bezala: harentzat ehungailu hori besterik ez dago.

(Aldameneko bakarra makina-kodea da.)

Elegiaren printzipioa: kexaren konponezintasuna, atzerapenaren tragediaren ulermena? Ez, zeren aitzitik, andre heroien negozio gisa, programatzea gerotasunaren kontrakoa da.

Erantzunak amestea.

Nekatzea. (Ilse Aichinger)¹³

Erantzunak amestea.

*Men may have dropped bombs, but it was women who told them where to do it*¹⁴.


Grace Hopperrek ez du uniformearen erantziko eskolak ematen dituenen. (Zergatik idazten ari naiz etorkizunean? Programazio-hizkuntzak orainaldia isla al dezake?)

12
13

14

Cixous, *Zirkulation des Begehrens*, 11. or. eta hurrengoa.
Kontzientzia nekatu egin behar da. Walter Benjamin-ek aipatutako Rastelli malabaristari bezala gertatzen zait. Behin galdetu zioten: «Nola egiten duzu hori hainbeste bolarekin?». Eta Rastellik erantzun: «Asko praktikatu behar dut, baina horregatik hainbeste praktikatu behar dut, non nekatu eta jokotik irteten naizen, non nire eskuak bakarrik geratzen diren, ni gabe, eragotz liezaiekeen nire kontzientzia kontrolatzailerik gabe». Eta hala gertatzen zait niri askotan: nekatu behar naiz idazketa bere kabuz sortu ahal izateko. Ikusi «Ilse Aichinger in Wort und Bild»: ORF; <https://oe1.orf.at/artikel/202954/Ilse-Aichinger> (azken kontsulta 2022-02-06an). Evans, *Broad Band*, 72.

Ametseko ahotsa gerra-*orainaldiko* nortasunarekin bat ez datorrena da.
Ametza ez da gerraren zati bat. Ez,
gerra munduari datorkion ametsa da.
Gehienbat hori da.
Munduak gerra amesten du.
Ez dago gerrarik. Ez,
emakumeek gerra amesten dute.
Gehienbat hori da.
Gerra emakumeek amesten duten zerbait baino ez da.
Gehienbat hori da.
Eta Ovidio Grace Hopperrek programatu duen konpiladorea da.
Hori idazten diot J-ri.



Kodea apurtzeko erabiltzen zen Colossus Mark 2 ordenagailu bat, Dorothy Du Bisson-ek (ezkerrean) eta Elsie Booker-ek (eskuinean) erabiltuta (1943).

Artista ezezaguna, Colossus kalkulagailu digital elektronikoaren argazki iruzkindua, 1943, Artxibo Nazionalak bilduma, Kew, Richmond, Londres, Erresuma Batua; <https://commons.wikimedia.org/wiki/File:Colossus.jpg> (azken kontsulta 2022-02-06an).



Artista ezezaguna. Ovidioren *Heroides* obraren eskuizkribu bateko miniatura, gutxi gorabehera 1496ko ilustrazioa, Paris (Île-de-France), Bibliothèque Nationale de France. Michel Pastoureau, *Des Teufels Tuch. Eine Kulturgeschichte der Streifen und der gestreiften Stoffe*, Marie Luise Knott-ek frantsesetik itzulia, Frankfurt / New York: Campus Verlag, 1995, 43.

Interesatzen al zait
hortik hain modu
zalantzagarrian sortzen
den idazkera «femenino»
baten eraikuntza berriz
deskodetzea? Nora
ote darama horrek,
kodetutakoak eraikuntza
maskulinoa baino ez
badu islatzen?

Softwareak
hardwarearekiko
autonomia
izateko aukeran
pentsatzea.



Die Möglichkeit einer Autonomie der Software von der Hardware denken.

Interessiert es mich, die Konstruktion einer weiblichen Schreibweise, die daraus
so missverständlich erwächst, wieder zu entschlüsseln? Wozu soll das schon
führen, wenn das Verschlüsselte nur die männliche Konstruktion abbildet?